

Tere Rotaetxe Chalbaud
Bilbo, Bizkaia (1919)

Aurkibidea

Biografia

Aita, Ignacio Rotaetxe (Gasteiz, 1888 - Zeanuri, 1951) euskal ingeniari eta politikari abertzale eta jeltzalea izan zen, Espainiako Gorteetan EAJ alderdiko diputatu ere izan zena. Ama, Juana Chalbaud (1895-1979), Pedro Chalbaud negoziogizon eta bizkaitar burgesiako kidearen alaba zen. Tereren aititak, "Unión Española de Explosivos" enpresako nagusia izateaz gain, Bizkaiko Batzar Nagusietan kargu garrantzitsu ugari izan zituen, Bizkaiko Ahaldu Nagusi bilakatu arte. Sei anai-arreba izan zituen Terek. Bera andereñoa izan zen eta ikastolen sorreran garrantzia handia izan zuen, bai eta euskara eta euskal kultura bultzatzeko beste hainbat egitasmotan ere. [IRALeren Bizkaiera Bilduma](#) rako egin zitzaion elkarriketa 1992an.

Zintak

BIL-019

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarriketatzailea(k):**
- **Data:** 1992-01-31

- **Iraupena:** 99 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Bilbotarra eta euskaraz

- **Erref:** BIL-019/002
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:01:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitak "onean edo txarrean" euskaraz egingo zutela esaten zien. Jendea harritu egiten zen bilbotarra izanda euskaraz jakiteaz.

2. Herrietako umeen euskara-erabilerarekin kezkatuta

- **Erref:** BIL-019/005
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Terek kezkatuta dagoela dio herrietako umeen hizkuntza-erabilera ikusita. Zeanuri jartzen du adibidetzat. Lehen umeek dena euskaraz egiten zuten. Orain, eskolan eta etxean euskaraz, baina kalean jolastu gaztelaniaz. Guraso askok gaztelaniara jotzen dute euren euskara ez dela ona eta umeek eskolan ikasten dutena hobea dela pentsatuta.

3. Gurasoek euskaraz bizitzeko apustua egin zuten

- **Erref:** BIL-019/007
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:06:03. **Bukatu:** 00:09:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bilboko "Gran Vía"ko 39.ean jaio zen 1919an. Etxean dena euskaraz egiten zuten. Amak ez zekien euskaraz ezkondu zenean, baina eurekin batera ikasi zuen. Neskameak ere euskaldunak ziren. Gurasoentzat erronka gogorra izan zen "contra corriente" zihoazelako. Nebak Indautxuko jesuitetan hasi ziren 9 urterekin. Koldo nebak lehen egunean bizitakoa, otoitz egiten euskaraz bakarrik zekielako. Bera moja gipuzkoar batengana eramaten zuen aitak,

dotrina euskaraz ikastera. Hara joateko "el puente de la perra chica" pasa behar.

4. Gerraren hasiera, erbestea eta Bilbora itzulera

- **Erref:** BIL-019/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:10:13. **Bukatu:** 00:11:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Umetan bi urte gaixorik egin zituen. Gerra zibilaren hasierak Ingalaterran harrapatu zuen eskolan eta ezin etxera itzuli. Ingalaterratik Frantziara joan zen eta han bat egin zuen gurasoekin. 1942an itzuli ziren Bilbora eta oso une gogorra izan zen. Aita 1948an itzuli zen, aurretik Venezuelan egon zen eta.

5. Lehen euskarazko eskolak Bilbon

- **Erref:** BIL-019/010
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:13:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolen sorrera. Bizkaiko lehen euskarazko eskola San Nikolasen ipini zuten. Zazpi ikasle hasi ziren Maria Angeles Garai irakaslearekin; 21 ikaslerekin amaitu zuten ikasturtea. Hura itxi ostean, bigarren eskola Irala kalean izan zuten, hiru andereñorekin. Autobus txiki bat ere erosi zuten. Eskola itxi eta irakasleak atxilotu ostean, klaseak gurasoen etxeetan ematen hasi ziren. Etxe batetik bestera aldatzen ziren. Beldurra izaten zuten.

6. Baimenarekin irekitako lehen ikastola; inaugurazioko kontuak

- **Erref:** BIL-019/011
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:13:51. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Baimenarekin irekitako lehen ikastola Elkano kaleko 6.ean ireki zen "Resurreccion Maria de Azkue" ikastola izan zen. Madrilera buelta asko egin

ostean, txiripaz lortu zela baimena dio. Inaugurazio eguneko kontuak. Gurbide gotzaina eta Sanchez Bizkaiko hezkuntzako inspektorea bezperan joan ziren, gelei onespena ematera. Gela bakoitzean Francoren eta Primo de Riveraren argazkia eta gurutzea zeuzkaten jarrita, baina bandera falta zitzaizela esan zieten. Retolazatarren aroztegiaren zuten banderaren makila. Guraso batzuek ez zituzten umeak halako ikurrak zituzten geletara bidali nahi, baina beraientzat garrantzitsuena euskaraz irakastea zen. Elbira Zipitria ere ez omen zen inoiz han sartu, banderagatik. Xabier Peña, berriz, gela bakoitzean bat jartzeko prest, euskarari lehentasuna emateagatik.

7. 1936an Ingalaterrara, ingelesa ikastera

- **Erref:** BIL-019/012
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Etxean hiru hizkuntza erabiltzen zituzten umetatik, frantsesez ere egiten zuten eta. 1936an ingelesa ikastera joan zen Ingalaterrara. Wight irlan egon zen. Hango bizipenak. Hango jatekoa gustatzen zitzaion. Larunbatetan txangoak egiten zituzten; behin argazki kamerarekin gertatutakoa. Zakarrik lurrera ez botatzen ikasi zuen.

8. Uholdea nola bizi izan zuten Donibane Lohitzunen

- **Erref:** BIL-019/014
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:26:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Bilbon uholdeak izan zirenean, Donibane Lohitzunen zegoen bera. Donibanetik Baiona aldera abiatu zen kotxean, lobak hartuta, baina buelta hartu zuen euri erauntsiarekin beldurtuta. Arratsaldean ibaian hiru karabana ikusi zituen abiada bizian pasatzen. Bilbora lau-bost geroago iritsi zen eta artean dena basaz beteta zegoen.

9. Errepublikako sasoian koloretako zintekin eskolan gertatutakoa

- **Erref:** BIL-019/017
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:27:52. **Bukatu:** 00:31:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Errepublika sasoian, "Sagrado corazón" kolegiara joaten zenean, 11-12 urterekin, neska guztiek zinta hori-gorriak zituztela liburuetan ikusi zuten. Lagun batzuek elkarrekin hitz egin eta beraiek ere gauza bera egitea pentsatu zuten, baina Errepublikako koloreekin. Hurrengo egunean eskolan liburuak ireki zituztenean iskanbila sortu zen. Azkenean eskolak erabaki zuen kolore gorria bakarrik erabil zezaketela, Jesusen bihotzaren kolorea. Zinta guztiak jaso zituztenean, pozik geratu ziren, garaipena lortu izan balute legez.

10. Semeak gudari eta mezan haien kontrako kontuak entzun behar

- **Erref:** BIL-019/023
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:35:03. **Bukatu:** 00:38:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Bermeoko anai frantziskotar batzuek hango gizon baten inguruan kontatutakoa. Gizonak bi edo hiru seme gudari zeuzkan. Mezara joan eta gudarien aurkako auskalo zer kontu entzun behar izan zituen. Gehiago ez zuela oinik ipiniko elizan agindu zuen. Gerora, urtean behin Arratiako tranbian Zeanuriraino joan, handik Gorbeia mendira igo eta hantxe hitz egiten omen zuen Jainkoarekin.

11. Bilbon dotrina euskaraz jartzeko lanak

- **Erref:** BIL-019/027
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:44:25. **Bukatu:** 00:47:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Bilbon lehen dotrina euskaraz ipini zuteneko kontuak. Elizarekin eta abadeekin izan zituzten tira-birak. Azkenean lortu zuten sei parrokiatan euskarazko dotrina jartzea. Lehen jaunartzea euskaraz egin ahal izateko ere arazoak: goizeko seietan egiteko esan zieten. Karmele Goñik abadeekin izan zituen liskarrak.

12. Munduan zehar euskarari esker

- **Erref:** BIL-019/030
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:54:18

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Munduan zehar ibili denean gehien balio izan diona euskara izan dela dio. Itsasontzi guztietan topatu izan ditu euskaldunak. 1939an New York-era iritsi ziren senarra eta biak eta handik beste barku bat hartu behar zuten Venezuelara. Barkuko arduradunetako batekin bizi izan zuten pasadizoa; Natxitukoa zen!

13. 1948an Estatu Batuetatik barkuan kaxaz beteta

- **Erref:** BIL-019/031
- **Iraupena:** 0:06:28. **Hasi:** 00:54:18. **Bukatu:** 01:00:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

<p>1948an Estatu Batuetara joan ziren hilabeterako. Hegazkinez joan eta itsasontziz itzuli. Euskal Herrian sasoi horretan ez zegoen ezer eta enkargu zerrenda luze batekin joan ziren. Zertzuk ekarri zituzten. Besteak beste, Barandiaranentzat magnetofono bat, grabaketak egiteko. Guztira kutxa handi pila bat. Barkura sartzean, paper batzuk eman zizkieten, ea zer zeukaten deklaratzeko adieraz zezaten. L´Arbrera iritsi eta handik Parisera trena hartzea zen asmoa, baina ez zioten utzi. Arduradunari deitu zioten eta hizketan hasi zirenean Itsasukoa zela jakin zuten. Berehala dena martxan jarri zuten, beraiek trena hartu ahal izateko. Dena euskarari esker.</p>

14. Garai bateko Bilboko "Gran Vía" eta inguruak

- **Erref:** BIL-019/036
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:03:26. **Bukatu:** 01:05:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bilboko "Gran Vía" 39an jaio zen, baina berak bi urte zituela handik joan ziren. Anaia-arreba gazteagoak 41. zenbakian jaio ziren. Tranbia. Ingurua nolakoa zen. Baserriak zituzten gertu. Indautxura joateko zezen plaza baten ondotik pasatzen ziren.

15. Gidabaimena ateratzeko, zerbitzu soziala egin behar

- **Erref:** BIL-019/041
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:09:50. **Bukatu:** 01:11:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Gidatzeko baimena 1943an atera zuen Bilbon. Horretarako, aurrez zerbitzu soziala egin behar zen. Ezkonduak ez zuten behar, horregatik agiria eskatzera joan zen. Zerbitzu soziala non zegoen.</p>

16. 1939an Venezuelara; hara joandako euskaldunen egoera

- **Erref:** BIL-019/045
- **Iraupena:** 0:05:37. **Hasi:** 01:20:29. **Bukatu:** 01:26:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

1939an Venezuelara joan ziren eta hamabost hilabete egin zituen han. Orduko Caracas nolakoa zen. Solairu bateko etxeak; eskorpioiak eta zomorroak. 300.000 biztanle zituen. Kontraste handia zegoen: jende oso aberatsa eta miseria. Jendeak itxura ona emateagatik larruzko jakak erabiltzen zituen, bero egin arren. Hasieran joan ziren euskaldunek txarto pasatu zuten. Nekazaritza zela etorkizuna pentsatu zuten eta dirua horretan inbertitu, baina ez zitzaien ondo joan. Gerora, eraikuntzan hasi zirenean, hobetu zen egoera. Han egon ziren euskaldun batzuk aipatzen ditu: Atxurra familia, Isidro Monzon arkitektoa...

17. Bilboko ikastola; lokal handiagoa behar

- **Erref:** BIL-019/050
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:27:15. **Bukatu:** 01:31:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bilbon martxan ipini zuten lehen ikastolak gerora ez zuten jarraitu, gauzak aurrera ateratzea zaila zelako. Elkano kaleko lokala txiki geratu zitzaien. Hasieran alde bat zeukaten eta gero beste aldea ere lortu zuten, bertan bizi zen emakumea handik alde egiteko konbentzitu ostean. Milioi bat agindu zioten eta dirua 30 egunean batu behar izan zuten. 1969a zen. Berriz txiki geratu ostean, "Gran Vía"ko pisu batera joan ziren. Han "Centro de estudios Oñate" izena hartu zuten. Pixkanaka lau solairu hartu zituzten. Umeek Plaza Eliptikoan jolasten zuten. Aparkaleku zaintzaile batekin gertatutako pasadizoa.

18. "Centro de estudios Oñate"ren itxiera

- **Erref:** BIL-019/051
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:31:21. **Bukatu:** 01:32:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Arrazoi askorengatik ezin izan zuten ikastolarekin jarraitu "Gran vía" kalean. Kooperatiba bat sortu zen orduan. Ume txikiekin jarraitu zuten hasieran, baina gero dena itxi zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com